# EIXAGOK AMA BEGIRA

2012KO OTSAILA - 156. ZKIA



## HOTZARI AURRE EGITEKO EGITARAUA

# AURKIBIDEA

03 Gabonetako VI. Argazki Lehiaketa
04 Gaztelekuko III. Bertso-paper lehiaketa
06 Maskarada - Diskofesta
07 Kontzertua: Sharon Stoner + Trunbo
08 Kontzertua: The Crack + Golpe de Estado

# AZKEN ORDUKOAK

oñati
KUKUTZA
rekin

**OTSAILAK 4**
**Zapatua**
**22:00etan**
**Gaztelekuan**




KUKUTZArekiko elkartasun astearen barruan honako kontzertu hau izango da Gaztelekuan: FDLN (Fenomenos De La Natiraleza) bilbotarrak, eta SKASTI zarauztarrak.



# GABONETAKO VI. ARGAZKI LEHIAKETA



Hona hemen Gabonetako VI. Argazki Lehiaketan berdinduta gelditu diren bi argazkiak: goian Julen Plazaolaren "*Duru*", eta behean Jone Arrazolaren "*Santamaña*". Zorionak biei, eta baita parte hartu duten beste zazpi argazkilari gazteei ere.



# III. Gaztelekuko BERTSO PAPER lehiaketa

## Sari banaketa

Otsailaren 3an egingo da Gaztelekuko III. Bertso-paper lehiaketaren sari banaketa jaialdia, eta bertan izango dira Beñat Gaztelumendi bertsolariaren eskutik sariak jasotzen (Gipuzkoako txapeldun-ordea) eta bakoitza bere bertsoa abesten maila ezberdinetako saritu guztiak. Hortaz gain, luntxa ere egongo da, eta lehiaketan parte hartu duten guztien artean argazki kamara digital bat ere zozketatuko da.

## OTSAILAK 3, OSTIRALA, 18:00etan

# XAKE ASTEBURUA

## OTSAILAREN 10 ETA 11AN

Gaztelekuak bere ibilbidea hasi zuenetik hainbat ekimen eta jarduera burutu dira bertan, baina futbolinarekin batera xakea da hasiera hasieratik mantendu dena. Hilabete hau mahai joko honi eskaintzea erabaki dugu aurten ere.

**TOPALEKUAN**

Otsailaren 10ean, ostirala, jokatuko da Topalekuko Xake Txapelketa. Izena eman dezakezue txapelketa hasi arte.

**KUBOAN**

Otsailaren 11an, zapatua, arratsaldeko 5etatik aurrera izago da Kuboko gaztetxoenen txanda.




TOPALEKUKO EGITARAUA
MASKARADA - DISKOFESTA
SOUND PROYECT-EN ESKUTIK
OTSAILAREN 18AN, ZAPATUA, 18:00TAN


KONTZERTUA GAZTELEKUAN
SHARON STONER
+ TRUNBO
Hiru kide ez direla nahiko rock talde batek entzulegoa K.O. uzteko? Hori uste duzu?
Ba zatoz Otsailaren 24an Gaztelekura, eta ikusiko duzu zer den ona!
Alde batetik Sharon Stoner oñatiarrak izango dira, euren disko berria aurkezten. Iñigo Ibarrondo, Egoitz Olalde eta Mikel Zarketa material berriarekin eskenatoki gainean ... Ba zen ordua!
Eta bestetik Trunbo gasteiztarrak. Urte bete baino ez zaigu joan taldea sortu zenetik, baina bere kideek badakite zer den musika munduan aritzea. Goska (Kashbad), Eneko (Năut) eta Kanda (Neubat, Vice Presidentes, Sorkun...) osatzen dute proiektu berri honen bizkar hezurra. Hirukotearen proposamena abesti pisutsuak eta gordinak eskaintzea da, baina keinu dotoreei muzin egin gabe. Kontrasteetan mugitzen zaigu taldea bere musikan. Bateria ahaltsuak, baxu oldarkorra eta gitarra zauritzaileak errezeta. Gasteiztarrak Helmet, Dut edo Prong bezalako iturrietatik edaten dute. Lehenengo diska aurkeztuko digute.
OTSAILAK 24, ostirala, 22:00etan


THE CRACK
(UK-Oi!)
GOLPE DE ESTADO
(OñAti - PUnK rOcK))
MARtXOaK 2
ostirala
22:00etan
gAZTeLEKUaN